




## 2015eko BAROMETROA

### Atzerriko immigrazioaren inguruko pertzepzioak eta jarrerak

Begirada honen bitartez euskal gizarteak immigrazioaren inguruan dituen pertzepzio eta jarrerari buruzko 2015eko Barometroaren datuak aurkeztuko dizkizuegu. Laburpen gisa, 2015eko Barometroak etapa normalizatuago baten hasiera iragartzen du, 2014ko Barometroan susmatzen zena, baina hobekuntzarekin immigrazioaren fenomenoari buruz aztertutako dimentsio gehienetan.


#### 1. Arazoaren pertzepzioa

Zure ustez, zein dira gaur egun Euskadik dituen hiru arazo nagusiak?  
(Gehienez ere 3 erantzun: bat-bateko erantzuna)



- Immigrazioa ez da euskal gizartearen arazo garrantzitsuenetako bat: soilik herritarren % 1,6k aipatu du bere kabuz, espontaneoki, Euskadiko arazo nagusia dela. Guztira, % 12,4k aipatu du.
- 2014arekin alderatuta, immigrazioa arazotzat hartzen dutenen ehunekoa % 12,1etik % 12,4ra igo da. Krisialdi ekonomikoko egoera honetan, herritarren ustez Euskadin gaur egun dauden arazo nagusiak langabezia, arazo ekonomikoak, ustelkeria eta iruzurra dira.
- Bat-batean emandako hiru erantzunak kontuan hartuta, Euskadiko herritarren % 12,4k aipatu du immigrazioa arazoa dela, honako hauen atzetik: langabezia (% 90,4), arazo ekonomikoak (% 30,5) ustelkeria eta iruzurra (% 18,2), klase politikoa, alderdi politikoa eta gobernua (% 17,4).


Txartel honetan aurkeztutako arazoaren artean, zure ustez zein dira Euskadiko hiru nagusiak?\*



- Immigrazioa handitzea arazotzat hartzen duten galde-tutakoan, berriz, % 15,3k adierazi du baietz.
- % 4,7k aipatu du arazo nagusia dela, Euskadiko arazoa dela bat-batean esan dutenek baino ia hiru aldiz gehiagok.
- Hala ere, gizarte- eta ekonomia-arazoak dira, oraingo honetan ere, euskal gizartearen kezka-iturri nagusia, langabeziarekin (% 84,7) eta bizitzaren kostuarekin (% 40,6) batera. Ondoren dator hazkunde ekonomikoa (% 22,8).


\* 2010etik aurrera emandako gaien zerrenda aurreko urteetan emandakoen desberdina da Europako datuekin konparazioak egin ahal izateko (EUROSTAT).

*Gaia aldatuko dugu. Zein dira zuri pertsonalki gehien eragiten dizuten hiru arazoak? (Gehienez ere hiru erantzun: bat-bateko erantzuna)*



- % 2k jo du immigrazioa arazo pertsonaletan lehen. Aipamen guztiak kontuan hartuta, EAEko herritarren % 7,3k soilik jo du immigrazioa arazo pertsonaltzat. Ehuneko hori 2014koa baino txikiagoa da: % 7,5etik % 7,3ra jaitsi da.
- Gehien aipatutako arazo pertsonalak dira langabezia (% 59,9), arazo ekonomikoak (% 33,5) eta ustelkeria eta iruzurra (% 14,1).


*Aurreko barometroekin egindako konparazioa: Zein dira Euskadiko hiru arazo nagusiak? (Gehienez hiru erantzun: bat-bateko erantzuna)*



- 2007tik aurrera arazo pertsonal nagusiek denboran izan duten bilakaera aztertuta, argi eta garbi ikusten da langabezia dela euskal gizartearen arazo pertsonal nagusia (% 90,4) gaur egun; arazo ekonomikoak datoz gero (% 30,5), eta klase politikoa (% 17,4) hirugarren tokian.
- Arazotzat hartzen diren faktoreen artean, immigrazioa bosgarren tokian dago (% 12,4), eta 2014ko barometroko datuekin alderatzen badugu, oso gutxi aldatu da, 0,3 puntu soilik.

## 2. Etorkin-kopuruaren pertzepzioa


*Euskadin bizi diren 100 biztanletik zenbat uste duzu jaino direla atzerrian?*



- Bertako biztanleek uste dute biztanleen %17,9 atzeritarra dela. Etorkinen ehunekoaren gaineko ikuspegi hori ez dator bat 2015eko urtarrilaren 1eko erroldatze-datu errealekin; izan ere, datu horien arabera, % 6,3 da atzeritarra.
- Hortaz, bertako biztanleen iritziz, EAEn bizi diren atzeritarren kopurua benetan dauden ia hirukoitza da.
- 2007. urteaz geroztik, bertakoen iritziz EAEn bizi diren atzeritarren kopurua, batez beste, % 16 eta % 18 artekoa izan da beti. Erroldatutako atzeritarren kopurua, aldiz, handitu eginda 2007tik 2012ra eta txikitu urte horretatik gaur egun arte.


### 3. Bizikidetz

*Non bizi nahi duzun erabaki beharko bazenu, hiru leku hauetatik zein aukeratuko zenuke?*



- EAEko herritar gehienek nahiago dute biztanle gehienak beren arraza edo talde etniko berekoak dituen auzoan bizi. Lehentasun horrek behera egin du azken urtean, 2014ko % 73,8tik 2015eko % 67,4ra.
- Bostetik batek nahiago du biztanle guztiak EAEko herritar gehienek nahiago dute biztanle gehienek beren arraza edo talde etniko berekoak diren lekuan bizitzea. Jarrera horrek behera egin du 2012tik gaur egunera arte.
- Eta, azkenik, soilik % 6,5ek du nahiago arraza edo talde etniko desberdinetako pertsona asko dauden lekuan bizitzea. Multzorik handitu egin da 2014tik, orduan % 1,8 baitzen ehuneko.


*Zure ustez, euskal herritarren eta atzeritarren arteko harremanak hobera egin du azken urtebetean, okerrera egin du, edo lehengo berean dirau?*



- Oro har, Euskadiko gizartearen iritziz (% 71,8), bertako herritarren eta atzeritarren arteko harremanak ez da aldatu azken urtebetean; nolahi ere, jende gehiagok (% 16,4k) uste du harremanak okerrera egin duela hobera egin duela baino, % 9k uste baitu hobera egin duela.
- Azken bi urte hauetan gero eta jende gehiagok uste du harremanek berdintzen direla, eta gutxiagok uste dute bizikidetzak okerrera egin duela.

### 4. Aniztasunaren tratamendua

*Esan zenbateraino zauden ados ala ez ondorengo baieztapenetan esandakoarekin:*




Hasiera batean, Euskadiko gizarteak jarrera positiboa du kultura-aniztasunari dagokionez:

- Euskadin beste talde etniko batzuk egoteak kultura-aberastasuna ekarri du: % 57,5 ados dago eta % 22,6 ez dago ados (2014an % 49,7 zegoen ados eta % 26,1 ez zegoen ados).

- % 51,1ek uste du etorkinen erlijio-praktikek ez dutela arriskuan jartzen gure bizi-estiloa, eta % 30,7k berriz arrisku hori ikusten du; 2014. urtean, % 57,8k uste zuen etorkinen erlijio-ohiturek ez zutela arriskuan jartzen gure bizimodua, eta % 19k baietz.
- 2014arekin alderatuta, kultura-aniztasunaren aurreko jarrerak hainbat modutan aldatu dira: “Euskadiko bizitza kulturala aberasteari” buruzko ikuspegia hobetu da, baina haien erlijio-praktikek gure bizimodua arriskuan jartzeari buruz dugun ikuspegiak okerrera egin du.


*EAEko biztanleen ustez, hobe da guztiak, etorkinek zein bertakoek, harrera-herrialdeko hizkuntzak hitz egitea (\*)*



- Bertako biztanle gehienek iritziak (% 78,5), euskal gizartearentzat hobe da guztiak, etorkinek zein bertakoek, harrera-herrialdeko hizkuntzak hitz egitea; % 10,8, ordea, ez da iritzi berekoa.
- 2012az geroztik hori da euskal herritarren iritzi nagusia, 2004an zegoenaren oso antzekoa.


(\*) 2004, 2007, 2008, 2009, 2010 eta 2011ko Barometroetan honako hau adierazten zen: “euskal gizartearen iritziak, hobe da etorkinek eta bertakoek hizkuntza bera hitz egitea”.

*Euskal gizartearentzat, hobe da den-denek ohitura eta tradizio berak partekatzea*



- Inkesta erantzun duten bertako biztanle gehienek (% 50,1) iritziak, euskal gizartearentzat hobe da den-denek ohitura eta tradizio berak izatea.
- 2015ean behera egin zuen baieztapen horrekin bat zetozen herritarren kopuruak, 2014ko % 58,25etik 2015eko % 50,1era, eta ados ez zeuden herritarren kopurua handitu egin zen.
- 2004tik gaur egun arterainoko bilakaerari erreparatzen badiogu, bi fase desberdin bereiz ditzakegu: lehenengo fasean (2004tik 2011ra) gizartearen iritzia polarizatuta dago, eta bigarren fasean (2012ko barometrotik aurrera), gizartearen gehiengoak pertsona guztiok ohitura eta tradizio berak izatearen alde dago.


*Euskadin bizikidetzak ona izateko, esan zer neurritan zauden ados kultura-aniztasunari buruzko honako baieztapen hauekin:*



- Herritarren % 70,4k uste du guztiak egin behar dutela ahalegina, bai atzerritarrek, bai bertakoek.
- Erabat onartuak izateko, immigranteek baztertu egin behar dute gure legediarekin bat ez datozen beren erlijio-alderdiak
- % 23,8k soilik uste du bertakoek ahalegina egin behar dute etorkinen ohitura eta tradizio batzuen berri jakiteko eta haietara egokitzeko.

### Ondo ala gaizki iruditzen zaizu atzerritarrek...?


- Euskal gizarteko gehienei ondo iruditzen zaie atzerritarrek sal-tokiak jartzea (% 64,7), janari exotikoen jatetxeak irekitzea (% 60,3) edo beraien jatetxeak izatea (% 56,8).
- Intentsitate txikiagoarekin bada ere, ondo iruditzen zaie euren artean beraien hizkuntzan hitz egitea (% 52,3) edo plazak eta espazio publikoak okupatzea (% 50,3).
- Aitzitik, hain exotikoak ez diren gaietan, kultura-portaera jakin batzuen muinera gehiago hurbiltzen garen heinean, bertako jende gutxiagori iruditzen zaizkio egokiak kultura-portaera jakin batzuk, hala nola, beren erlijioetarako tenpluak eraikitzea (% 40), beren irakaskuntza-zentroak izatea (% 34,9), edo beren herrialdeko jantziekin ibiltzea (% 31,9).



- Oro har, datu horiek alderatzen baditugu 2014ko Barometroarekin, aipatutako ia kultura-portaera guztien aldeko iritziak ugaldtu egin direla ikusiko dugu, beraien jantziak jantzeari buruzkoak izan ezik. Horren aldekoak zertxobait gutxitu egin dira.

## 5. Euskal nortasunean eta euskararen dituen eraginak


### Atzerriko immigrazioaren eragina euskal gizartean:



- Euskal gizartearen gehiengoak ez du uste etorkinek euskal nazionalismoaren helburuak geldiaraziko dituenik (% 75,9) edo euskal identitatea galaraziko duenik (% 76,3).
- Euskarari eta bere erabilerari dagokionez, gehiengoak (% 71,6) ez du uste haren erabilera murriztu egingo denik Euskal Herrian, ez eta haren garapena motelduko denik (71,7%).

## 6. Eragina ekonomian

### Esan zenbateraino zauden ados ala ez ondorengo baieztapenen edukiarekin:




- Bertako biztanleek modu anbibalentean eta argi bereizi gabe ikusten ditu immigrazioak ekonomiaren gainean dituen eraginak.
- Gutxi gorabehera, EAeko hamar herri-tarretik hiruk ez du uste bizitzera eta lan egitera datozen etorkinen eraginez soldatak jaitsi egingo direnik.

- Euskal herritarren iritzia polarizatuta dago etorkinek gure ekonomiako zenbait sektoretan lan egiteko premiarekin zerikusia duten jarrerai dagokienez: % 42,2k uste du behar ditugula eta % 41,3k ezetz uste du.
- Gehiengoak uste du bertakoek nahi ez dituzten lanpostuak betetzen dituztelako, ekonomiak hobeto funtzionatzeko duela.


## 7. Eragin sozialak

*Esan zenbateraino zauden ados ala ez ondorengo baieztapenen edukiarekin:*



- Euskadiko herritarren % 54,2k uste du etorkinek etekin gehiegi ateratzen dutela babes sozialerako sistematik. Ehuneko hori 2014koa baino txikiagoa da.
- Era berean, % 44,4k uste du etorkinek zerga gutxiago ordaintzen dituztela gero jasotzen dutenarekin alderatuta; % 25,2k, berriz, kontrakoa pentsatzen du.
- Euskal gizartearen % 41,4k uste du atzeritarrak egoteak segurtasunik eza eta delinkuentzia eragiten dituela. % 39,6k aurkako iritzia du.


*Kezkatuta al zaudete atzerriko pertsona gehiago iristeak eragin negatiboa izan dezakeelako zuregan edo zure familiarengan honako alderdi hauetan:....?*



- Euskal gizartearen kezka nagusia gizarte-laguntzak lortzeko orduan izan dezakeen eragin negatiboa da. Iritzia positiboagoa da aztertutako gainerako kontuetan, esaterako, lana aurkitzea, ospitaleetan gehiago itxaron behar izatea, etxebizitza aurkitzea eta kalitate eskasagoko hezkuntza jasotzea.
- 2014ko Barometroa kontuan hartzen badugu, euskal herritarren iritzia azken urtean hobetu egin dela esan dezakegu.


## 8. Eskubideak eta zerbitzuak eskuratzea

*Zure iritziz, Euskadin bizi diren etorkinek eta bertakoek aukera bera izan beharko lukete honako eskubide hauek eskuratzeko?*




- Hezkuntza eta osasun-laguntza eskubide unibertsalekin lotzen dituzte euskal herritar gehienek.
- Baina ez dute gauza bera pentsatzen gainerakoei buruz: laguntza juridikoa, gizarte-laguntzak, BOE, familia berriz biltzea edo boto-eskubidea. Horiek atzeritarren erregulartasun-egoerarekin lotuta geratzen dira.
- Nolanahi ere, 2015ean pertsona gehiagok uste dute eskubide eta zerbitzu batzuek unibertsalak izan beharko luketela.

*Zure iritziz, Euskadin bizi diren etorkinek doan eskuratu beharko lituzkete zerbitzu hauek:*




- Euskara eta gaztelania eskolei dagokienez, gehienek uste dute atzerritar guztientzako eskubidea izan beharko lukeela, horien erregularitasun-egoera kontuan izan gabe.
- Lanbide-heziketari dagokionez, iritziak banatuta daude denentzako eskubidea izan beharko lukeela uste dutenen eta erregularitasun-egoeran daudenentzat soilik izan beharko lukeela uste dutenen artean.
- Eta ama hizkuntzaren eskolei dagokienez, iritziak banatuta daude inorentzat ez luketela izan behar uste dutenen (% 34), erregularitasun-egoeran daudenentzat soilik izan beharko luketela uste dutenen (% 32,3), edo denentzat izan beharko luketela uste dutenen artean (% 30,4).

*Zure ustez, zer jarrera izan beharko lukete erakundeek Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari dagokionez?*



- Euskal herritarren % 40k uste du pertsona guztiak, bertakoek zein etorkinek, izan beharko luketela diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) jasotzeko aukera, horren premia baldin badute, errolatze-denbora kontuan hartu gabe.
- Euskal herritarren % 24k uste du etorkin guztiak izan beharko luketela DSBE jasotzeko aukera, baina horren premia duten bertako guztiak jaso ondoren.
- Azkenik, % 28k uste du DSBE administrazio-egoera erregularrean dauden pertsonentzat izan beharko lukeela.


*Esan zenbateraino zauden ados ala ez ondorengo esaldietan esaten denarekin:*



- Bestalde, bertako herritarren % 57,5en iritziz, etorkinek gehiegi baliatzen dute DSBE, monopolizatu egiten baitute.
- Halaber, bertako herritarren % 55,6k uste du etorkinek lanik egin nahi ez izatea edo lanik ez bilatzea eragiten duela DSBEk
- 2014arekin alderatuta, murriztu egin da etorkinak gizarte-laguntzez baliatzen direla edo DSBEk lanik ez egin nahi izatera edo lanik ez bilatzera bultzatzen dituela uste dutenen ehunekoa.

## 9. Immigrazio-politika

### Zure ustez, zer politika litzateke egokiena langile etorkinentzako?




- Bertako herritarren % 11,6 etorkinak sartzeko legezko ezein oztoporik ez jartzearen alde dago. % 6,6 dira etorkinak sartzea nolana galaraztearen alde daudenak.
- Bertako 10 herritarretik 7k, gutxi gorabehera, uste dute etorkinei etortzeko aukera emateko lege-baldintza batzuk bete beharko lituzketela: zehazki, % 56,5en ustez, soilik lan-kontratua dutenei utzi beharko litzaieke sartzten; eta, % 14,9ren iritziz, legezko beste baldintza batzuk betetzen dituztenei ere eman beharko litzaieke sartzeko auke-

ra; hala nola, familia berriz elkartzeko helburua dutenei, ikasleei, errefuxiatuei eta abarri. Azken batean, lan-kontratuak berme-emaila izaten jarraitzen du gizartearen zati handi batentzat, ziurtasuna sortzen duelako eta susmo txarrak ezabatzen dituelako.


- Bilakaera aztertuta, ikusi dugu herritarrek eutsi egin diotela etorkinei sartzten uzteko ideiare, baldin eta baldintzak betetzen badituzte. Pixka bat ugalduta dira lege-oztoporik gabe sartzten utz dakiekeela uste dutenak.

### Esan zenbateraino zauden ados ala ez ondorengo esaldietan esaten denarekin:



- Euskal gizartearen iritziz, lanik gabe geratzea ez da arrazoi nahikoa atzerriko langileak kanporatzeko (% 62,9).
- EAEko gizartea zorrotzagoa da indarrean dagoen legedia ez betetzearekin: Euskal gizartearen % 48,1 dago edozein delitu egiten duten atzerritarrek kanporatzearen alde.


### Zure ustez, zer egin beharko luke Gobernuak egoera "irregularrean" dauden etorkinekin?



- Oro har, euskal gizarteak lana eta langile atzerritarrek onartzea lotzen jarraitzen du, eta lana duten atzerritarrek erregularizatzearen (bizileku baimena ematearen) aldekoa da. Lotura hori aldatzen joan da azken urte hauetan.
- Gutxiengo batek soilik du jarrera zorrotza; % 10,8 da administrazio-egoera irregularrean dauden atzerritarrek kanporatzearen aldekoa.

## 10. Begikotasun-maila

*Esan, mesedez, Otik 10erako eskalan, ondorengo herrialdeetako edo munduko eskualdeetako pertsonetikiko sentitzen duzun begikotasuna. Ok esan nahi du ez dituzula batere begiko eta 10ek oso begiko dituzula.*



- Beste urtebetez ere, kulturaren, politikaren edo gizartearen arloetan gertuko- en ditugun kolektiboak ditugu begiko- en, eta alderantziz. Hala, begikotasun txikiena magrebtarrek (3,8), errumania- rrek eta EBko ekialdeko kolektiboek (4,2) dute. Horiek dira kulturaren edo gizartearen ikuspegitik urrunekoak eta/edo aurreiritzi handienak sortzen dituztenak.


- Halaber, EAEko herritarrek EBko mendebaldetik eta Argentinatik etorritako etorkinei diete begikotasunik handiena.

## 11. Tolerantzia-indizea


### Tolerantzia-indizearen bilakaera

Atzeritarrekiko tolerantzia-indizearen bitartez EAEko bertako herritarrek atzerriko etorkinen aurrean dituzten jarrera eta jokabideak neurtzen dira. Tolerantzia-indizean laburbiltzen dira EAEko herritarrek etorkinekiko dituzten iritziak, jokabideak, balioak, sinesmenak, estereotipoak eta abar. Indizea Otik 100era bitarteko zifra bakarrean adierazten da, eskolako nota balitz bezala, eta zifra tarte horretan kokatzea, fenomeno horren aurrean zer nolako jarrera dugun ezagutzea eta datozen urteetan izango dugun bilakaera ikustea du xede.

2015ean, bertako herritarrek 58,04 puntu lortu dituzte tolerantzia-indizean, eta 2013an hasitako joera berretsi da, emaitzek hobetzen jarraitzen baitute. Tolerantzia-indizearen gorakada hori bat dator 2015eko Barometroko puntuazio gehienetan lortu diren emaitza hobeeekin.



### Talde nagusien tamainaren bilakaera



- ◆ Toleranteak
- Anbibalenteak
- ▲ Uzkuurrak

Euskal gizartearen hiru profil bereizten dira atzerriko immigrazioaren aurrean: tolerantteak, anbibalenteak eta uzkuurrak; profil horiei dagokienez, 2015ean tolerantteen taldeak gora egin du (% 41,9). Anbibalenteen taldeak ere gora egin du (% 43,3), eta uzkuurren taldeak behera, % 21,8tik 2015eko % 14,9ra.

## Immigrazioarekiko tolerantzia-indizearekin lotutako aldagaiak

## TOLERANTZIA-ATALASE

## TXIKIENA

## DUTEN PERTSONEN PROFILA

## TOLERANTZIA-ATALASE

## HANDIENA

## DUTEN PERTSONEN PROFILA

	Aldagaia	Esangura	
Emakumezkoak	Sexua	.003	Gizonezkoak
65 urtekoak eta hortik gorakoak	Adina	.000	18 eta 29 urte bitartekoak
Araba eta Bizkaia	Lurraldea	.000	Gipuzkoa
Lehen mailakoak, ikasketarik gabe	Ikasketak	.013	Goi- eta erdi-mailako unibertsitate-ikask.
5.000 biztanle edo gutxiago	Habitata	.000	5.000 eta 150.000 biztanle artean
Katolikoak, praktikanteak ala ez	Erlijioa	.000	Agnostikoak, ateoak eta ezaxolak
Erdaldunak	Hizkuntza	.000	Euskaldunak
Espainiarra	Abertzaletasuna	.000	Euskalduna, euskaldun moderatua, ezaxola
Espainiarra	Identitate-sentimendua	.000	Euskalduna eta euskaldun-espainiarra
Eskuinekoa	Ideologia	.001	Ezkerrekoak eta zentro-ezkerrekoak
Hilean 1.000 €, gehienez	Diru-sarrerak	.011	Hilean 2.500 € eta gehiago
Gustura ez daudenak	Egoera ekonomikoa	.000	Gustura daudenak eta ezaxolak
Etxeko lanetan arituak, erretiratuak, langabeak	Lanbidea	.000	Ikasleak
Estatus baxua eta erdi-mailakoa	Estatusa	.000	Estatus altua
Krisiaren eragin handia	Krisiaren eragina	.015	Krisiaren eragin txikia
Ezkorrak	Baikortasuna	.000	Ezaxolak eta baikorrak
Etorkizun txarra	Etorkizuna	.000	Etorkizun normala eta ona
Etorkinen eta bertakoen nahasketa	Auzoa	.007	Etorkinen presentzia handia
Inolako harremanik ez	Interakzio pribatua	.000	Nolabaiteko harremana
Inolako interakziorik ez	Interakzio publikoa	.000	Interakzio handia edo zerbait
Interakziorik ez	Aisialdiko interakzioa	.000	Handia edo nolabaiteko intentsitatekoa

Azterketa horrek aukera eman du tolerantzia-indizeari loturiko zenbait aldagai soziodemografiko identifikatzeko. Aldagai horien bitartez, atzerriko etorkinekiko tolerantzia-maila handia edo txikia duten pertsonen profila ezagutu daiteke.

Taulan ikus dezakegun bezala, nolabaiteko lotura dago tolerantzia-mailaren eta hainbat aldagaien artean, esaterako, sexua, adina, ikasketak, erlijioa, hizkuntza, nazionalismoa, identitate-sentimendua, egoera ekonomikoa, okupazioa, estatusa, krisiaren eragina, baikortasuna, etorkizunerako itxaropena, interakzio pribatua, interakzio publikoa, aisialdiko interakzioa.

## ONDORIOAK

1. EAEko herritar gehienek ustez immigrazioa ez da arazo garrantzitsua. Herritarren % 1,6k soilik uste du fenomeno hori Euskadiko arazo garrantzitsuena dela. 2014ko Barometroarekin alderatuta, oro har, hobekuntza egon da immigrazioaren aldeko jarreretan.
2. Datuen argitara, EAEko herritarrek atzerriko immigrazioaren aurrean jarrera anibalentea dutela esan behar dugu: batzuen jarrera irekia eta tolerantzia da, eta beste batzuen, aldez, kontrakoagoa. Dena den, jarrera tolerantzearen aldeko joera argia dago.
3. Lan-merkatuarekin eta etorkinen kolektibo horren funtzionalitatearekin lotutako kontuak neurtzen dituzten itemek utzi diote beherantzko joerari, baina ez dira oraindik kokatu krisiaren aurreko mailetan.
4. Anibalentzia hainbat alderditan adierazten da, esaterako, gizarteratze-ereduan. Kultura-aniztasunaren aberastasun soziala nabarmentzen duten iritzien aurrean, jarrera asimilazionistak ere azaldu dira. Azken boladan finkatu eta ugaltu ere egin dira. Egia esan, gai gehienetan ziklo-aldaketa bat nabaritzen da, baina gai horretan krisi-aldian hasitako joerari eusten zaio.
5. Atzerriko etorkinak iristearekin lotutako gaien artean, honako hauek dira ziurgabetasun eta susmo txar handienak sortzen dituzten alderdiak: ongizate-estatuari, babes sozialari eta zerbitzu sozialei eustea. Kasu horretan, aurreiritziek behera egin dute, hain zuzen ere, Ongizate-estatuarekin, babes sozialarekin eta prestazio ekonomikoekin lotutako gaietan.
6. Ondorio gisa, 2015eko Barometroaren datuak hobekiak izan dira 2014koak eta aurreko urteetakoak baino.
7. Euskal herritarrek immigrazioaren fenomenoarekiko duten Tolerantzia-indizea 100etik 58,04 puntuko da 2015ean, eta 2013an hasitako joera berretsi da, emaitzek hobetzen jarraitzen baitute.
8. Oro har, beherakada egon da immigrazioarekiko jarrera negatiboetan. 2014ko Barometroan susmatzen zen bezala, 2015eko Barometroak etapa normalizatuago baten hasiera ezarri du euskal gizarteak immigrazioarekiko dituen iritzi eta jarreraren esparruan.



### HARPIDETU GURE BULETINETARA

Gure **argitalpenak** zuzen-zuzenean zure e-mailean jaso nahi dituzu?

Gure **dokumentazio-zentroko nobedadeen** berri izan nahi duzu?

Harpidetu **hemen**